



EBAZPENA, 2022ko ABENDUAREN 22koa, HEZKUNTZA SAILAREN LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. ZUZENDARI BERAREN 2022ko URRIAREN 3ko EBAZPENA ALDATZEN DUENA. HORREN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOETAKO PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOEN EBALUAZIOAN JARDUNGO DUTEN KALIFIKAZIO BATZORDEAK IZENDATU ZIREN

2022ko uztailaren 23ko Hezkuntza Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bitartez arautu da Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetako sartzeko Hezkuntzako sailburuaren 2018ko otsailaren 26ko eta 2020ko otsailaren 18ko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan hautatutako izangaien praktikaldia.

Aipatutako ebazpenan ezarritakoari, hots, praktikaldiak ebaluatu behar dituzten Batzordeen osaera eta horien argitarapena arautzen duenari, jarraituz, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko urriaren 3ko Ebazpenaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetako praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten kalifikazio batzordeak izendatu ziren.

Kalifikazio Batzorde bateko kide batek parte hartzea eragozten duten gorabeheren ondorioz, batzorde hori aldatu behar da.

Horren arabera, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Aldatzea Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko urriaren 3ko Ebazpena, zeinaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetako praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten kalifikazio batzordeak izendatu ziren. Honako hau da aldaketa:

Bigarren Hezkuntzako irakasleen Kidegoko Kalifikazio Batzordeko bokal titular izendatzea María Teresa Soroa Echezarreta andrea. María José Ruiz De Ocenda García kidearen ordez jardungo du.

Bigarrena.- Izendapen horren berri ematea Hezkuntza Saileko interneteko helbideetan: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaur-lar-itza/hezkuntza-saila/>

Hirugarrena.- Kalifikazio Batzordeetako kideari aplikatuko zaio urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, 23. eta 24. artikuluetan abstentzioari eta ezespenari buruz ezarritakoa.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordeari, hilabeteko epean, argitara eman eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 22a.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA